

Maddi susmoaren susmoz

por Anjel Lertxundi

Maddi harri eta zur zegoen: haren aitona irten berria zen etxetik braga txiki batzuk eskutan.

Pentsatu zuen Maddik: «Arrazoi du amak. Jubilatu bezain laster denak zorutzen dira. Aitona ere seko pitzatuta dago. Hara nola, atzo bertan uso bat ikusi zuen leihoko harlosa gainean jarrita eta galdetu zion: Ba al dakarkidazu mezurik? Usoa, noski, beldurtu egin zen eta ihesari eman zion. Amari kontatu nion. Bere maniak ditu, esan zidan. Eta orain, bragen kontu hori. Zertarako behar ote ditu? Txiki gelditu zitzaizkidan eta baztertuak dauzkat. Ez da, beraz, hori kontua. Baina jakin beharra daukat ze asmotan dabilen».

Etxetik irten zen oldartsu. Bazekien non aurkitu. Aitonak, jubilatu ondoren, etxearen atzekaldea garbitu zuen sasiak, asunak, pote erdoilduak eta teila puskatuak bilduz. Ondoren, zenbait barazki aldatu zuen bertan, porruak, azenorioak, ilarrak... Harro zegoen bere baratzarekin. Orduak eta orduak botatzen zituen bertan.

—Aitona, bazkaltzeko ordua da!
—deitzen zion leihotik errainak.

Aitonak eskuak igurtzitzen zituen mahonezko galtzetan eta erantzuten zion:

—Igoko al ditut bi bat letxu?

—Noski, noski... Eta perrexil pisika bat ere bai, gaur arraina daukagu eta saltsan!

Baina baratzan lana gogotik egin da ere orduak sobratzen zitzaizkiola egunean zehar, eta oilategia jartzea

erabaki zuen. Beharrezko baimen guztiak eskatu zituen Udalean, lur saila alanbre sarez inguratu zuen, txabola bat ere jaso zuen eta kaiolak ipini zituen bertan untxientzat, jarri zituen bi kota ere txabolako aldenik alde oiloek bertan lo egin zezaten eta usategia jarri zuen, azkenik, oilategiko goikaldean.

—Aitona, afaltzeko ordua da. Ekartzu dozenerdi bat arrautza.

—Ondo da. Igoko ditut piper berdeak ere. Ikaragarri atsegin zaizkio Maddiri...

Maddik etxeari buelta eman eta, behin baratzan, oilategiko ate txikira arrimatu zen. Aitona eserita zegoen alkitto batean eta, haren belaun gainean, oilo bat ari zen zalapartari, ihes egin nahi bizian.

Aitona oiloa lasaitu nahian ari zen:

—Zaude geldi, segituan bukatuko dut eta.

Jantzi zizkion bragak eta, haundi zeuzkala ikusi zuenean, gerriko gisa balia zezakeen soka batez inguratu zizkion bragak oiloari.

—Bapo, hobeto dago horrela. Politta zaude benetan, Genoveva...

Maddi erretiratu egin zen aitona deskubri ez zezan. Etxera igo zen. Ez zekien zer egin.

Pentsatzen zuen: «Amari kontatzen badiot, sendagilearengana eraman dezake. Eta aitona erotuta dagoela esango du sendagileak. Non ikusi da oilo bati bragak jantzen dizkion jaun bat?».

Obean etzan zen, burua bere bi esku gurutzatuetan, eta begirada sa-

paira so: «Ez dago aitona jokabidea zuritzerik. Ondo dakit badagoe la hotzik pasa ez dezaten katuak eta txakurrak jantzen dituen jenderik, baina oilo bat... Gainera, udan gaude. Aitona pitzatuta dago, ez daukat beste hitzik. Amari kontatuko diot, jakin egin behar du. Esaten ez badiot, aitona txarrera joko du eta hurrengo batean hor hasiko da untxiei hortzak garbitzen. Edo barraskiloen jantze bat irekitzea bururatuko zaio igual. Ikusita dago behin jubilatzen direnean, txoratu eta juizio guztia galtzen dutela».

Baina ez zen erabakia hartzera ausartzen. Behin amari esandakoan, eroetxera eramango zuten aitona eta Maddiren lagunek jakin egingo zuten.

—Maddi, egia al da zure aitona bragak jantzen zizkiela oiloari?

—Maddik, haunditzen denean, lenteria fineko denda bat irekiko du oiloentzat...

Maddik eskolan ikasitako asmakizun bat gogoratu zuen:

—Tipitaki, tapataki, nork jarri ote zuen arrautza zimaurretan?

Danelekin gogoratu hutsa aski izan zitzaion Maddiri urduritzeko. Danel edozein gauzari puntta ateratzen zekiena izaki, aldatuko zuen asmakizuna eta hasiko zen deiadarka klase guztiaren aurrean:

—Tipitaki, tapataki, nork jarri ote zuen arrautza bragetan?

Ondoren Anderrek, beti pronto Maddi bere onetik ateratzen saiatze-

ko orduan, txalo joko zuen errezitatzen zuen bitartean:

—Oiloek bragak janzen badituzte, ze jantzi klase dagokie oilarrei?

Eta guztiek batera erantzungo zuten:

—Kantzontziloak!

Ez zegoen hartatik pasatzeko prest. Negarrez hasi zen. Bazekien negar egiten denean masailak haunditzen direla. «Bi apo jaiotzen dira aurpegiaren bi aldeetan», esan ohi zion amak, baina Maddik negar egin nahi zuen. Baita bi apo jaiotzen bazitzaizkion ere.

«Total, pentsatu zuen, ez dute klasekoek barre gehiago egingo oiloaren historiarekin baino...»

Negarrari negarra, loak hartu zuen. Eta ametsetan hasi zen. Maddi lentzeria denda bateko saltzailea zen, eta oiloak, untxiak, usoak eta horrelakoak bakarrik azaltzen ziren dendara. «Zer nahi zenuke?», galdetzen zuen Maddik eta uso batek erantzuten zion handiputz, bere behatzekin igurtziz moarezko kamisoi baten kalitatea neurtzen zuen bitartean:

—Ziur al zaude ez zaidala, behin garbitutakoan, txikituko?

Ondoren zikoina bat azaldu zen. Pardel bat zeraman mokotik zintzilik, eta bertan haur bat, dena deiadar, dena karraxi. Zikoinak galdetu zion Maddiri:

—Ba al duzue azala erretzen ez duen gasarik?

Denetarik azaldu zitzaion: indaioilar eta paumak ondatutako lumak berriro asmoz, katagorriak frack eske, beren lumaia zuria pajarita beltzez indartu nahi zuten beltzargak... Ahate itsusia era ausartu zen, lotsati eta urduri, kristal biselatuko atetik sartzera:

—Ba al daukazu... ba al daukazu leotardoak? Ez, horiek ez. Ez dai-tezela transparenteak izan. Ba... ba... bixar asko daukat eta...

—Maddi!

Tupustean esnatu zen. Ilunpean zegoen gela. Hankak luzatu eta nagiak atera zituen. Lo hartu aurreko amorrua, urritu orde, biziago sentitu

zuen: denen txantxagal eta guztien petzero izango zen, ziur zekien.

—Maddi! Jaitsi zaitetz baratzara eta esan aitonari igo ditzala arrautzak. Tortila prestatu nahi dut eta batere gabe nago.

Pentsatu zuen: «Hauxe da okasioa. Erotu nahi badu, eskubide osoa du. Baina alde egin dezala. Utz gaitzala bakean. Horrelaxe esango diot, argi eta garbi: Aitona, ez zaude burutik sano. Denon onerako, zoaz etxetik».

Eskailerak jaitsi zituen. Kalera irten eta asmoz aldatu zen: «Beno, esplikada dila. Mundu guztiak dauka bere burua zuritzeko eskubidea. Esango diot: Erotuta zaude, aitona. Zertara dator oiloak bragekin janzte hori? Ea, esplikazaitetz...».

Inguratu zuen etxea eta baratzetik bueltan zetorren aitonarekin egin zuen topo muturrez mutur.

—Non arraio sartu zara, Maddi? Barre piskat egiteko aukera ederra galdu duzu horratio...

Maddik ez zion erantzun. Maddik pentsatzen zuen: «Hara, tipoa... Nik diodana, seko erotuta dago nik parre egingo dudala uste badu. Joan dadila antzarrak perratzen. Gutxiena espero duenean botako diot. Nazkatuta nago, aitona, halaxe esango diot. Kokoteraino nago batere graziaz ez duten zure ateraldi xeble horiekin».

—Oilo batek erruten zituen arrautzak mokoz jota zulatu ondoren, jan egiten zizkidan. Genobebak, ezagutzen duzu. Haizeputz bezain axkarra da tunante farfilla. Zertarako bizkarrak okertu zizare bila, behin jakin duenean ez dagoela munduan berak ipintzen dituen arrautzak baino gauza goxoagorik?

«Angela Maria, a ze kuelgea...»

—Eta ez dit axola beragatik. Baina, ba al dakizu, gainerantzeko oiloak konturatuko balira, agur arrautza guztiei! Laster asko ikasten dute.

—Aitona, beti galdetzen didazu haunditan zer izan nahi dudana...

—Eta?

—Erabakita daukat: Lentzeria denda jarriko dut.

